

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2265

*304/2018 EBAZPENA, martxoaren 6koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikuen kategorian lotura estatutarioko izaera lortzeko hautaketa-probetako epaimahai kalifikatzailea izendatzen da.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2018ko otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 14ko 171/2018 Ebazpenaren bidez, onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko Fak. Esp. Obstetria eta Ginekologiako Medikuen kategoriako oinarri espezifikoak.

Oinarri orokorrak onartu zituen Ebazpenaren 18. oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-probak kalifikatuko dituen epaimahaia izendatuko du.

Horiek guztiak horrela, eta indarrean dagoen legedian pertsonaleko gaietan aitortuta ditudan eskumenez baliatuta, honakoa

#### EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Lehen aipatutako kategoriako prozesuaren Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea. Hori ebazpen honen I. eranskinean jasotako kideek osatuko dute.

Bigarrena.– Ebazpen honek duen egunetik aurrera emango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartzen dituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 21. oinarrian ezarritakoari jarraituz, Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 6a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.

## I. ERANSKINA

## FAK. ESP. OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIAKO MEDIKUA

Presidentea:

- Titularra: Santiago Rabanal Retolaza.
- Ordezkoa: Juan Miguel Campayo Pérez.

Lehenengo epaimahaikidea:

- Titularra: María Arantzazu Lecuona Artola.
- Ordezkoa: Irache Ocerin Bengoa.

Bigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Txanton Martínez Astorquiza Ortiz de Zárate.
- Ordezkoa: María Elisa Ecenarro González-Echevarría.

Hirugarren epaimahaikidea:

- Titularra: María Mercedes Fraca Padilla.
- Ordezkoa: Daniel Andia Ortíz.

Laugarren epaimahaikidea:

- Titularra: José Angel López López.
- Ordezkoa: María Unamuno Beraza.

Bosgarren epaimahaikidea:

- Titularra: Maximina Martín Mateos.
- Ordezkoa: María Carmen Álvarez Leal.

Seigarren epaimahaikidea:

- Titularra: Roberto Gascón Calvo.
- Ordezkoa: Alaitz Pagalday Bereciartua.

Idazkaria:

- Titularra: José Angel Zuaznabar Fontecha.
- Ordezkoa: Serafín Vigiola Larrinaga.